

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2016ko iraila • 319. alea



BENAN OREGI
“Aititarena belaunaldi oso baten historia da”



HEMEN eta ORAIN
DENON HERRIA

Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakariagaia

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU
ehbildu

giltzak

SEGURIDAD

Segurtasun handiko ate
berriak betiko
profesionaltasunarekin.

¡Zatoz eta informa
zaitez!



www.innmotion.es/puertasdeseguridad

Eibar, Arragueta 3

943 70 13 91

sutarako egurra salgai
pago-egurra, haritz-egurra...

SUMA
basolanak

mug. 635 71 34 08



Belarrak

Lorodenda eta belardenda

Loreak, etikagai ekologiko eta
osasungarriak, kosmetika eta etxea
garbitzeko produktu ekologikoak

Etxea eramateko
zerbitzua

Enkarguak egiten dira
Tel.: 943 75 30 11



TXOKO
KAFETEGIA

Kalebarreneko
kale kantoian
Tel. 943 75 17 89

Eguneko menua, razioak,
plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak,
gosaria, pizzak...

Enkarguak egiten dira

TXURRUKA JATETXEA

- Sukalde tradizionala
- Eguneko menua
- Asteburu eta menu berezia
- Karta

www.txurruka.com
Tel.: 943 75 15 81



Mendata

Tel.: 943 25 74 52 / 680 75 40 60

Enkarguak egiten dira
Eramateko prestatzen da
Menu bereziak enkarguz

Berezitasunak:
Ebean egindako
pizzapatak eta
patata frijituak

TATTOO ESTUDIO
ARTISTIKOA
INIBIRU

Apiztegui 16, 50840 UZEL (Gipuzkoa) Tel. 947725443 www.inibiru.com

AURREZTU ENERGIA



Berotu etxea
BIOMASA ETA
EGURREZKO
galdarekin

fontaneria
San Andres
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

Japoniatik ekarritako irakaspena

Beti gustatu izan jataz zuhaitzak, hain geldik, hain errotuta, hazi besterik ez. Goruntz eguzkixak, eurixak eta lurrak emon-dakuakin... Lasaittasuna emoten doste. Eta oxigenua. Hainbeste behar dogun oxigenua. Txorixen bizileku, kantuan darenian pausaleku. Eguzkittan, itzal goxua eta noizipeinian, aterpia euripian. Sarri geratu izan naiz hostueri begira, ze zuhaitz dan jakin nahixan, eta azala zelakua dauken... Gustoko dittut zuhaitzak.

Badauzkat zuhaitz kuttunak be, herrixan edo inguruetan bizi diranak, urtaruen juan-etorrixakin aldatzen ikusten dittutenak. Adibidez, Atxolineran bidian azken lautadaxuan daon pago bakartixa, edo kañoi fabrikako iturriko platanerua. Plaza Zaharreko plataneruen azpitan hazitakua naiz, eta futbol-zelaira bidian daren zuhaitzak, guklandatu genduzen, ikastolatik juandako ume mordo batek. Zeinek ez dittu ezagutzen Azka-beittiko pagadi magikua edo San Martzialgo artiak? Pagobedeinkatu, Urkiazelai, Estaziñoko geltokiko zuhaitza, ikastolako igogailuan ondoko intxaurrondua...

Oin dala gutxi Japonen izan naiz eta han zuhaitzak zela errespetatzen dittuen ikusi dot. Hango basuak bete-betiak pentsatu jataz. Hiri edo herrixetan be oso presente darella sentidu dot. Formak emoten dotsez eta zaindu. Baina harrigarrixak pentsatu



Domentx Uzin

“Teilatuan zuluia eginda eta enborra bi denden artian, bere lekutxua eginda. Zoragarrixa pentsatu jatan, zuhaitzen izaeria hainbesteko errespetuz tratatzen ikustia.”



P.G.

jatazen, batez be, bi lekutan: Kanazawan eta Naran. Kanazawako ibai ondoko pasean Sakura zuhaitz zahar oker batzuk daoz eta porlanezko petrila haren formara egokitzen da, enborren inklinaziñua errespetatuaz, zuhaitz bakoitza inguratuaz. Lehenengo natura da eta gero giza-kixa. Naran, Buda erraldoia dauan tenplura doian bidian, turistentzako dendatxo mordua daoz, eta bi denden bittartian, bapatian, zuhaitz haundi-haundi bat, denden eraikinan barruan integratuta! Teilatuan zuluia eginda eta enborra bi denden artian, bere lekutxua eginda. Zoragarrixa pentsatu jatan, zuhaitzen izaeria hainbesteko errespetuz tratatzen ikustia.

Kasualidaz, Japonen jakin neban Ezoziko bideko lehenengo etxe ondoko zuhaitza moztu egin zebela, “Dantzari” gainera. Demaseko shock-a hartu neban. “Baina zela eta zegaittik? Zuhaitzederra zan barren! Bizilaguneri arazoren bat eragingo ete zotsen? Mamorruak-edo, igual?” Pena sakona sentidu neban herri barruko zuhaitz polit bat desagertu zala jakitzian. Gero, bueltan ikusi neban dana moztuta... Ondiok urtengo dotsez berriro adarrak eta egingo dau aurrera, berriro gora. Berriz ikusiko dogu urtaruekin aldatzen, hostuak galtzen, loratzen, txorixak bertan kantuan...

Euskalzaletasunaren alde:



SORALUCE

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa Telefonoa: 943 75 13 04 e-maila: aldizkaria@pilpilean.com
Erredakzioa: Egoitz Unamuno eta Gaizka Azkarate Zuzentzailea: Leire Ginea Publizitatea: Gaizka Azkarate Diseinua: Iñigo Uribetxebarria Maketazioa: Oier Larreategi Inprimategia: Gertu Koop. Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale I.Z.K.a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA



Deialdia

Soraluzetik Kilometroetara bizikletan joateko

Urriaren 2an Bergaran egingo diren Kilometroetara bizikletan joan nahi duten soraluzetarrendako zaindutako parking-a egokitzeko aukera dago. Horretarako bi talde osatzea proposatzen dugu, goizeko 9etan eta 10etan herriatik aterako direnak, bidegorritik zehar igerilekuetaraino joateko. Taldeak antolatu ahal izateko aurrez izena ematea komeni da eta arduradun bi izendatzea. Interesik izanez gero, eman izena Pil-pilean euskara elkartearen.

Deialdia

71ko kintoen bazkaria

Urriaren 22an, 14:00etan, Txurrukan. Aurrez, 13:00etan elkartuko gara Plaza Zaharrean.

Dagoeneko batu ditugun 45 gaztainak erretzeko gertu baldin bazaude, urriaren 15a baino lehen 50 € ingresatu behar dituzu ondorengo kontuan: ES77-0081-4253-1500-0605-6516 (Sabadell).

Irazarkiak

Haurrak zaintzeko prest

Neska euskalduna, goizez haurrak zaintzeko prest. Irakasle ikasketekin. Telefonoa: 690 649 881.

Taxi lizentzia salgai

Juan Jose Cruzen taxi lizentzia salgai Soraluzen. Telefonoak: 607 220 808 / 607 220 808

Bittartetik



Garazi Arizaga

Gabolatseko afiziñua

Gutako edozeinek entzun dau inoiz "Kalebarren tiene cosas que no tiene el mundo entero", ezta? Bada gaurkuan, ondoko kale baten inguruan hizketan egittera nator. Gabolatze, edo Gabolats, bakoitzan gustural! Horrek be badaketa berezi egitten dabean hainbat kontu. Bat aipatziarren, Baltegietatik Gabolatzeera begiratuta, kostako herri baten legez, balkoiak arraun-taldien arteko lehia islatzen dabean banderaz koloreztatuta darella ikusten da. Badijadi barnealdekuongana be heldu dala arraunan olatua. Palaz pala, herrikozenbait astebukaerero euki gaittu tebibistara itsatsita, zeinek irabaziko zain! Irailakin batera amaittu da aurtengo arraunketarako denboraldia. Daguaneke pasatu dira liga eta Kontxa eta, oin, danan bixamonak pasau ostian, urteko balantzia egittia tokatzen da. Baina emaitzak alde batera lagata, aipatu nahiko neuke, Gabolatzekeo balkoi banaka horrek Plaentxian bezela, arrauna be inguruko kirol masifikatuen artian itzalpetan geratzen dan horietako bat besterik ez dala. Ilunpe horretatik ez dirala ikusten arraunakin batera datozen dietak, neguko hotzak eta zauriz jositako esku latzak. Gaurko arrauna aspaldiko arrantzalieren lanaren seme (eta alaba!) da, Kantauri Itsasoko harroaldi bakoitzetik ikasitako errespetutik hazia. Gure herri txikia bezela, txikitasunean haundia. Beraz, hurrengo denboraldirako gonbidapena luzatzen dot, danon artian jarraitu deigan herria apaintzen eta hain guria dan kirol horri merezitako bultzada ematen!



IZAGUIRRE
Igeltserritza

Eraikin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreformak • Era guztietako igeltserritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 289



ALKARRI
elkartea

www.alkarri.org
alkarri@alkarri.org 622 725 557

- Boluntarioen prestakuntza eta antolamendua
- Esku-hartze gerontologiko eta sozialen programen garatzea
- Esku-hartze psikosoziala egoitza eta eguneko zentroetan
- Dizarte eta kultura animazio zerbitzu pertsonalizatuak

“Mugikorra almohada azpian dudala egiten dut lo”

Juan Jose Cruz Aranda
(Zaragoza, 1950)



1990. urteaz geroztik herriko taxi-gidari bakarra izan da. 26 urtean asko aldatu ei da taxi-gidari lana baina oraindik ere maite du gidatzea. 66 udaberriren ostean, taxi-lizentzia salgai jarri du, familiagatik eta, batez ere, mokorreko ebakuntza baten ondorioz hartu du erabakia.

Zela hasi zinen taxi-gidari?

1990. urtean udaletxeak lan-deialdi publikoa egin zuen, ordura arte Teo Ruiz zen herriko taxista. Nik izena eman nuen eta onartua izan nintzen. Jarraian B2 eta ondoren BTP lizentziak eskuratu nituen. Gaur egun, nahikoa da gida-baimen arrunta eta taxi lizentzia izatea.

“Taxi-lizentzia salgai daukat eta interesa duenarekin prezioa adostuko nuke”

Zela lortzen da taxi-lizentzia?

Normalena lizentziak gidari batetik bestera pasatzea da, hau da, taxi-gidari batek erretiroa hartzen duenean, interesdun bati saltzen dio. Herriaren arabera adosten da prezioa.

Zer dela-eta erabaki duzu lagatzea?

66 urte ditut eta familiak erretiroa hartzeko ordua dela esaten dit. Horrez gain, mokorreko ebakuntza baten zain nago eta ezingo dut lanik egin denbora batez. Bi arrazoi nagusi horiek aintzat hartuta

lagako dut baina, egia esan, posible babiliz bizitza osoa emango nuke taxi-gidari modura.

“Bizitza osoa emango nuke taxi-gidari modura”

Zelakoa da taxista lana Soraluzen?

Herri guztiarentzat egin dut lana eta ez dut inoiz arazorik izan. Bezero-mota ugari egoten dira: autobusak ihes egin diona, larrialdi bat suertatu zaiona, eta, batez ere, lantegiekin egin dut lan asko.

Orduetgia?

Lanik ez dudanean lantegietako orduetgiarekin egoten naiz Zubi Nagusian, goizez eta arratsalde. Lana izanez gero, berriz, ez dago orduetgirik, beti nago zerbitzua emateko gertu. Mugikorra almohada azpian dudala egiten dut lo. Horixe da herri-mailako taxi-gidariaren errealitatea. Zerbitzutik kanpora nagoenean, beste taxi-gidari batengana bideratzen ditut bezeroak.

Zer gustatzen zaizu gehien?

Gidatzea maite dut eta jendearekin bidaiatzearen erosotasuna ere bai. Bakarrik bidaiatu behar dudanean, berriz, irratia izaten dut bide-lagun.

Azken 25 urteetan zertan aldatu da taxista lana?

Garaiarekin aldatzen da taxi-gidariaren egunerokoa. Gaur egungo krisiak eragin

handia izan du, beste sektoreetan moduan. Kontuan hartu behar da taxi-zerbitzua ez dela ezinbestean beharrezko zerbitzu bat, jatea izan daitekeen moduan, hortaz, nabaritu da beherakada, baina hemen gaude garai onetan eta txarretan.

“Gidatzea eta jendearekin bidaiatzea maite dut”

Pasadizioa:

Gogoan dut orain dela urte asko gizon bat sartu zela taxian eta gaztelera berba egiteko zuen moduagatik, pentsatu nuen baserritarra izango zela. Galdetu zidan inguru hauetan gazteak non dibertitzen ziren eta nik orduan aipatu nizkion inguruetako taberna, diskoteka, klub eta antzeko leku guztiak, denen berri eman nion. Handik egun batzuetara jakin nuen gizon hura herriko abade berria zela.

LABURREAN

Egindako bidai luzeena?

2100 km-koa.

Gorroto duzu?

Auto barruan botaka egitea.

Zenbat kotxe izan dituzu?

Bost.

Guztira zenbat km egin dituzu?

Milioi eta erditik gora.

Batzoki Jatearen plazera, bertatik bertara

eguzteko menuak
astebarrietan
karta eta raziok

ogiatzekoak eta
hamburgesak
enkaru bereziak

familia eta
lagun arteko
barkariak

Erreserbak:
943 75 20 16

Kontulan
aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak • Administrazio lanak • Trafikoko burokrasia
Lan-arloko aholkularitza • Enpresen konstituzio/disoluzioak • Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. ezk. 20590 Soraluze • Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

Pil-pileanen topaketak zapatuan



Maialen Errotabere kantaria.

Pil-pileanek topaketak antolatu ditu zapatu-
rako. Topaketen helburua da Soraluze euskaldunago egiteko asmoarekin elkar-
tearen bueltan diharduten soraluze-

tarrak elkarrengana batu eta elkarrekin egun pasa egitea, elkar-
tearen barne bitzita sendotzeko. Egune-
ko lehen ekimena, elkar-
tearen 20. urteurrena ospatzeko
abenduaren 3an -Euskararen egunean-
antolatuko duten ospakizun berezia
prestatzeko gogoeta saio egitea izan-
go da, ostean, biodantza saioa egingo
dute eta handik ateratakoan, Marrakekin
poteoa eta talde-argazkia aterako dute.
Gero, Ibai-eder elkartean bazkalduko
dute elkarrekin eta iluntzean, topaketei
amaiera emateko, Maialen Errotabere
kantariak kontzertua eskainiko du Gaz-
telupeko terrazan. Datozen hilabeteetan
Pil-pileanek hainbat ekimen jarriko ditu
martxan elkar-
teak 20 urteotan herrian
euskararen erabilera berreskuratzeko
egin duen bidea ezagutarazteko.

FotoNotizia



Katigatuta GPSari kasu egitearren

Eguazten goizean Olatik Santa Anarako bidean katigatuta gelditu zen Gol lantegira materiala zekarren trailerra. Galiazatik zetorren eta GPSak adieraziz ion herriaren erditik pasatu behar zuela helmugara heltzeko. Lau ordu inguru egin zituen ez aurrera eta ez atzera egin ezinik eta azkenean garabiak lagundu behar izan zion ateratzen. Auzoko bizilagun baten esanetan, GPSari jarraituz azken hilabeteotan bide hori hartu duen hirugarren kamioia da eta bere uztez komenigarria litzateke seinaleren bat jartzea.

Motzean

Hauteskunde-kanpainako ekitaldiak

Eusko Legebiltzarrerako hauteskun-
deak direla-eta, alderdi politikoe-
k euren proposamenak ezagutaraz-
teko kanpainan jardun dute azken
asteotan. EH Bildu izan da kalean
ekimen gehien antolatu dituen: La-
rraitzen Ugarteren mitina, gai mo-
nografikoen inguruko bi solasaldi
(ekonomia sozialaz eta tokiko gara-
penaz, pentsioez eta osasungintzaz),
kanpaina-amaierako jai... Alderdi
Sozialistako ordezkariak larrosak eta
programak banatu dizkiete herrita-
rrei azoka egunetan.

Kanpaina gaur amaituko da eta do-
mekan goizeko 9etan zabalduko
dituzte botokutxak kiroldegian.
Arratsaldeko 20:00ak arte aukera
egongo da bozka emateko.



Baserritarren eskariak jasotzeko bilera

Irailaren hasieran Udaleko eta Debe-
meneko ordezkariak baserritarrekin
batu ziren landa eremuan egin di-
ren lanen errepaso egin eta da-
torren urterako eskariak jasotzeko.
Lau baserri-auzoetako baserritarrek
hartu zuten parte bileran eta erre-
pideen konponketekin zerikusia du-
ten eskariak izan ziren nagusi, nahiz
eta bestelako batzuk ere izan ziren:
gaizki aparkatutako autoen arazoa,
egurrak pilotzeko gunegoki baten
beharra... Baserritarrekin egingo den
hurrengo bilera Gaztañerre azoka
antolatzeko egingo da, irailaren 27an
arratsaldeko 19:00etan.

Mendiola
Industrialdea 13

BELAI TZ

Tel.: 943 75 18 81
www.belaitz.com

NEKAZAL ETA INDUSTRI HORNIGAIK

Hitzaldia ikusmen urritua ezagutarazteko

Ikusmen urritua duen Xiomara Aguilarrak soraluzetarrak azaldu digunez, pertsona batek bere ikusmenaren murrizketa esanguratsua jasaten duenean, eta betaurreko edo tratamenduekin hobetu ezin denean, eguneroko bizitzako zeregin batzuk egiteko ezintasuna izaten du eta gaitza ezagutu ezean, jende askok ez du ezintasun horien jatorria ulertzen: jendea agurtzen ez dugunean, behar baino motelago ibiltzen garenen... Xiomarak azaldu digunez, 2013an Retinosis Gipuzkoa Begisare elkarteak "ikusmen murriztua dut" kontzientziario kanpaina jarri zuen martxan eta kanpaina hori oso baliagarria izan da pertsona askorendako, tartean berarendako. Udaleko Ongizate sailak antolatuta, urriaren 13an hitzaldia izango da ikusmen urrituaz berba egiteko (ordua eta lekua zehazteko).



Fitosanitarioa ateratzeko ikastaroa

Belaitz hornigai etxeak produktu fitosanitarioen erabiltzaile agiria ateratzeko ikastaroa antolatu du Eusko Jaurlaritzaren bitartez. Urriaren 24an hasiko da eta bost eguneko iraupena izango du. Ordutegia 15:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da eta udaletxeko batzar aretoan eskainiko da. Kostua 50 eurokoa izango da. Informazio gehiago, Belaitzen bertan.



Hasi dira indusketa lanak Gizaburuagako tumuloan



Martitzenean hasi zituen Aranzadik Gizaburuagako hilobi prehistorikoa industeko lanak. Bost lagunek lan-taldea osatu dute Aranzadiko kide eta laguntzailerekin eta Jesus Tapia arkeologoaren gidaritzapean, zedarrutako eremuan belarrak eta lurra kentzen hasi dira, azpian egon daitekeen harlauzazko ganbararen bila. Lurra kendu ahala jakingo dute harlauzarik baden, ala desagertuta dagoen. Dena den, Tapiaren esanetan, harlauza aurkitu hala ez, lurra kentzeko prozesuan hainbat material ager litezke eta interesgarria da industea.

Bisita gidatuak

Aranzadik bisita gidatuak antolatu ditu irailaren 24an eta urriaren 1ean. Bisitetan parte hartzeko aurrez izena eman beharra dago 943 46 61 42 telefonora deituta (9:00etatik 14:00etara) edo idazkaritza@aranzadi.eus helbidera idatzita. Azalpenak Aranzadiko kideek emango dituzte eta Gizaburuagako indusketak ezagutzearrekin batera, Atxolin inguruko megalitoen berri ere emango dute. Eguntan eskolako eta institutuko ikasleak ere joango dira indusketak ezagutzera.

Oroimen ekitaldiak hamabosgarrenez

Asier Heriz eta Iñaki Saezen heriotzaren 15. urteurrenako oroimen ekitaldiak egin dira irailean. Irailaren 8an hamabost dantzarik agurra eskaini zieten Plaza Berrian eta irailaren 10ean, Karakaten dantzaz, bertsoz eta kantuz osatutako ekitaldia antolatu zuten. Bi eskari nagusi zabaldu dituzte bi ekitaldiodan: "presoen eskubideak urratzen dituen dispertzio politikoa amaitu eta biktima guztiak kontuan hartuko dituen memoria idatzi dadila".



Karakateko ekitaldia.

“ZUTIK OZTA-OZTA NATOR” LIBURUA

Benantzioren gutunak eta memoria



ARGAZKIAK ETA TESTUA E. UNAMUNO

“Kalebarreneko etxean ezagutu genituen txikitatik, kutxa batean ondo tolestuta eta gordeta, gerra-denborako ehunka karta. Umetan egindako aurkikuntza izan zen: misterioz inguratutako kartoizko kutxa batean zeuden, amamaren logelako armairuan gordeta, hariz inguratuta eta horituta”. Horrela hasten da Benan Oregik bere aitita Benantzio Iñurrietaren inguruan idatzi duen liburua.

Gerraurrean EAJko zinegotzia izan zen Benantzio Iñurrieta. Gerra hasi zenean kartzelaratu egin zuten, eta lau urte eta erdi eman zituen preso, frankisten esku; besteak beste, Iruñeako Ezkaban. 1936-1940 bitartean preso zegoela, kartzeletatik etxera bidali zituen 256 gutunetatik abiatuta idatzi du Benan Oregik – lehen-gusuen laguntzarekin- aititaren ibilbide politiko, erlijioso eta kulturalaren gaineko liburua: *Zutik ozta-ozta nator*.

Gerra hasi zenean kartzelaratu egin zuten, eta ia lau urte egin zituen preso

Hiru urteko lana behar izan du 288 orrialdeko liburu mardula ontzeko. Argazki, gutun eta agiriz hornitua dago eta laurhundik gora lagunen erreferentziak jasotzen ditu, baita aititak egindako hainbat bertso ere. Liburua euskaraz idatzita dago, tartekatzen dituen gutunak eta agiriak gazteleraz badaude ere. Benanen helburua “ez da izan aititari omenaldia egitea, istorio partikular bat kontatuta belaunaldi oso baten historia kontatzea baizik. Nahi nuke liburu honek balio izatea antzeko egoerak bizi izan zituzten familiak anima daitezen euren historia kontatzera”. Hori dela eta, liburua herrian aurkezteaz gain, Boisen (Idaho) aurkeztu zuen abuztuan eta urrian Gasteizen ere aurkeztuko du. Benanek hogeita zazpi urte dramatika Gasteizen bizitzen eta hogeita inguru Eusko Jaurlearitzak Diasporako Euskal Komunitatearentzako eratuta duen zu-



Iñurrietarren sendia egueneko aurkezpenaren ostean.

zendaritzan lanean. Ondorioz, lotura sendoak ditu Boiseko euskal komunitatearekin.

Eguenean aurkeztu zuen liburua herriko antzokian eta herritar asko hurreratu ziren bertara, tartean, Iñurrietarren familiako kide asko. Une hunkigarritz betetako ekitaldia izan zen, batez ere, Benantzioren bertsoak kantatu eta gutunak errezi-tatu zituztenean. Baita aurkezpenaren amaieran Benanek aititari idatzitako gutuna irakurri zuenean ere. Aurkezpena amaitu ostean, liburua salgai jarri zuten. Hurrengo egunetan herrian eta herritik kanpora ere eskuratu ahal izango da liburua, Elkar argitaletxearen bitartez. Guztira 200 ale inprimatu dituzte.

BENANTZIO IÑURRIETA AGIRREGOMAZKORTA



Soraluzen jaio zen 1884ko apirilaren 1ean eta Lekeition hil zen 1964ko abuztuaren 20an, 70 urte zituela. “Hil zan bizitzeko” jarri zuten bere orot-orrian.

ETXERA BUELTATU ZENEKO BERTSOAK

Ondorengoak dira kartzelatik etxera bueltatu zenean Benantziok senideei kantatu zizkien bi bertsoak, liburuari izenburua ematen dio lehenengo esaldiak.

*Zutik ostostan nator
ni kartzelatan
azurrak agirian
da indarrik barikan.
Ez uste orregaitik
ni aldatzerikan
kastigatuagatik
gogor arturikan
burua oraindik dakart
lengo lepotikan.*

*Lenbiziko agurra
sendi maiteari:
guraso, ta emaste
seme-alaberi.
Besarkada goxo bat
emanik danori
otoitz egin dayogun
gaur goiko Jaunari
Bisirik etorri naiz
eskerrak Berari.*

“Ez zen heroia, bere garaiko pertsona arrunta zen”

Benan Oregi Iñurrieta
(Soraluze, 1964)



Zein zen Benantzio Iñurrieta Agirrego-mozkorta?

Bere garaiko gizon bat. Ez zen heroia, bere garaiko pertsona arrunta zen. Esango nuke oso zintzoa, elizkoia, euskaltzalea eta oso euskalduna zela. 17 urterako Soraluzeko Uri Buru Batzarreko idazkari aukeratu zuten, baina aurretik, Juventud Integrista de Guipuzcoaren sorreran parte hartu zuen, bokal moduan, hamabost urterekin. Integrismotik abertzaletasunerako bidea egin zuen, Gipuzkoan beste askok egin zuten bezala. Handik urte batzuetara zinegotzi izateko aurkeztu zen EAJtik.

Liburuak zinegotzi moduan egindako ibilbidea kontatzen du, gartzelako ibilerak eta baita hartu behar izan zituen bi erabaki garrantzitsuren berri ere.

“Tropa frankistak herrira sartu zirenean gelditzea erabaki zuen”

Zein izan ziren erabaki horiek?

Lehen erabakia tropa frankistak herrira heldu zirenean hartu behar izan zuen. Azken momentuan gelditzea erabaki zuen. Ingurukoek uste zuten hain katolikoa eta 7 seme-alabaren aita izanda, ez ziotela kalterik egingo. Oker zegoen. Berehala atxilotu zuten eta ia 4 urte egin zituen preso, oso baldintza gogorretan.

Bigarren erabakia, Iruñeako Ezkaban preso zegoela antolatzen zuten ihesaldian parte hartzea izan zen. Ihesaldi horretan 800 presok ihes egin zuten baina hiruk bakarrik lortu zuten Frantziako muga zeharkatzea; 200 ametrailatu egin zituzten bide bazterretan eta gainerakoek baldintza beldurgarrietan bizi behar izan zuten bueltatu zirenean. Amanak urteetan gorde egin zituen aititik bidalitako gutunak.

Zela pentsatu zenuen gutunekin liburu osatzea?

Duela urte batzuk konturatu nintzen amonak gutunak hari batekin lotuta zituela eta pentsatu nuen ez zela modurik egokiena iraun zezaten. Gutunak askatu eta digitalizatu egin nituen, gero CDtan familiakoei banatzeko. Baina ez zen nahikoa izan eta orduan beste zerbait egitea pentsatu nuen. Lehengusuekin berba egin eta Xabier Irujo historialariarekin batu ginen. Berakesan zigun berari liburu baterako material interesgarria iruditzen zitzaioela eta aurrera egitea erabaki genuen. Orain, gutunak nonbaiten behar bezala jasota geratzea nahi dugu eta edozeinen eskura.

Zer kontatzen du gutunetan?

Gutunetan ez du gauza asko kontatzen. Batez ere du eguneroko aldarteaz hitz egitendu, preso egonda irteteko sortzen diren esperantzez, familiako kontuez... Jaungoikoa eta erlijioa ere sarri aipatzen

ditu. Oso sinestuna zen eta horretarako salbatu zuen. Dena dela, gutunena aitzakia izan da gero bere bizitza arakatzeko.

Gutunetako edukiaz gain, bestelako kontuak ere jasotzen ditu liburuak.

Bai, gutunetan ageri den informazioaz gain, garaiko testuinguruaren zein bere bizitzako beste hainbat konturen berri ere eman dugu: erlijioa, familia, abertzaletasuna, euskaltzaletasuna eta bertsozaletasuna... Horretarako, ikerketa-lan gogorra egin behar izan dugu: udaletxeko aktak arakatu, adituekin eta familiakoekin hitz egin, irakurri...

“Gutunena aitzakia izan da gero bere bizitza arakatzeko”

Zein irakurle izan duzu gogoan liburua idazten jardun duzunean?

Neure burua eta familia. Batez ere, familiako ondorengoei lagatzen ondare ederra da. Gerora, konturatu naiz aitaren historia herriko eta Euskal Herriko historiaren parte ere badela.

Gure aitaren historia belaunaldi baten historia da. Nahi genuke beste familia batzuk animatzea etxean eduki dezaketen hori kontatzeko. Irakurri berri dut egunkari batean Jose Saramagoren zita bat. Hala dio: “memoria historikoa zaindu egin behar da, ze isiltasunak ahanztura dakar eta ahanzturak indiferentzia”. Hau xe da nere ekarpena.

San Martzial eta Mesedeetako jaien argazki albuma



Ander Ariznabarretak irabazi du udako argazki lehiaketa

Ander Ariznabarretak irabazi du *Haroko mahastia II* argazkiarekin Plaentxia.eus-en Udako argazki lehiaketa. Publikoaren saria berriz, Lorea Elizburuk eskuratu du, *Bambu basoa* argazkiarekin. Txurruka jatetxean jatordua eta Egotzako ahuntz gazta irabazi dituzte hurrenez hurren. Guztira 40 argazki aurkeztu dira lehiaketara, 12 argazkilarirenak.



Haroko mahastia II (Ander Ariznabarreta).



Bambu basoa (Lorea Elizburu).

aek
SORALUZeko AEK

Matrikulatze epea: irailak 28
Soraluzeko AEK euskaltegia
Baltegieta 2 · 20590 Soraluze
943 75 14 34 · soraluze@aek.eus

Euskara ikastaroak:

- Euskalduntze orokorra (aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)
- Xede bereziko ikastaroak (aurrez aurrekoa)
- B1/ B2/ C1 maila (EGA)
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP,
- IRALE, Osakidetza
- ON LINE
- H-100 (Euskaltzaindiaren arauak)
- H-501 (Testugintza)
- C1 eta C2 Maila
- EGA lantzeko zerbitzu osagarriak
- Administrazio idazkiak
- Eskatzailearen neurriko ikastaroen diseinua
- Glotodidaktika

Diru-laguntzak:

- EUSKO JAURLARITZA: maila egiaztatuz gero
- UDAL BEKA



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Denda

-TIENDA ESPECIALIZADA-

Favier Alberdi

ERRABAL KALEA, 24
TEL. 943 75 19 32

GIDA 2016

Osatua, eguneratua eta euskalduna
Komertzioak, lantegiak, elkarteak eta erakundeak
Interneten: www.plaentxia.eus/gida



KLB6

Kalebarran 6
943 57 74 26
Mutlen eta nesken moda gaztea

 KLB6
www.kalbarran6.com








BOLIA



TABERNA
Pintxoak
Ardoak
Kombinatua
Gazte-giroko festa

Tel.: 943 02 95 02



Elizpe


Hortz klinika

Gazte zeharitzak:

- Ortodontzia iruztezia
- Inplanteak

DOMINIKO BERRAKUETXELI
FINANTZAKETA ZURE NELURRIA
KONPROBESORAK GAZTEKO AURRERAKONTUA

MUTURLLA, PADI (Jauregiaren aurretikako hortz programari)



Tel.: 943 75 25 67
Elizburu, 3 beheko, Sorluze

MABEL

ILEA PAINDEGIA

Ilearentzako keratina tratamendua · Depilazioa
Ile-sustrairik gabeko permanentea · Makilajea
Manikura erdiiraunkorra
Solariuma

Errabal 1
Tel.: 943 75 14 89





Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

Erropa eskaintza paregabea

943 75 13 45



Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala, eguneko menua eta asteburueta menu berezia

Etxeko souflera

Tel.: 943 75 10 02



Hortz klinika

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 20.000.434

Katia Gustino
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

Errabal 1 - Tel.: 943 75 16 13

27 urteko esperientzia

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finkoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, inplanteak, estetika...



“Mandarinez komunikatzeko hitz batzuk esaten ikasi behar izan dut”

Miguel Borinaga Treviño, 24 urte
Shangai, Txina



Huangshanen (Mendi horiak).

Zerk eraman zaitu Shangaira?

Materialen fisikaren arloan ikerketalanean nabil doktoretza egiten, eta Shanghaiko HPSTAR ikerkuntza-zentroan hiru hilabetezko estantzia bat egiteko aukera eman zidaten.

Zer nolako esperientzia bizi izan duzu?

Esperientzia oso aberasgarria izan da, arlo profesionalan zein pertsonalean. Hori bai, iritsi eta lehenengo inpresioa itzela izan zen: 25 milioi inguruko hiri batera heldu, ia inork ingelesez ez dakien taxi bat lortzen saiatzea... *kar, kar, kar.*

Nolako da han eguneroko bizimodua?

Astean zehar, normalean, etxetik lanera eta lanetik etxera ibili banaiz ere, bidea oinez egiteko aukera izan dut egunero eta inguruak ezagutu ditut. Bertako jantzeria eskaintzen duten tokiak oso merkeak dira, otordua 3-4 euroren truke har dezakezu. Asteburuetan hiria ezagutu eta txinako hainbat txoko bisitatu ditut.

Aipatu nabarmentzekoak diren gauza bi:

Janari arraroek erreportaje bat idazteko beste emango lukete... Ahate mingaina probatu dut, baina behin janda nahikoa.

Bestalde, gidatzearen gaia dago, trafikoa kaos hutsa da. Hobe hurrengo baterako uztea...

Nolako da Shangai?

Shangai bera kontraste haundiko hiria da. Ehunka metroko eraikin modernoak etxe eta tenplu tradizionalekin nahasturik daude. Itxura europarrek auzoak ere badaude, Shangai hiri erdi-koloniala izan baitzen II. Mundu Gerrara arte, britainiarra eta frantziarra, batez ere.

Zerk harritu zaitu gehien?

Pekinen *Txinako Harresian* izan nintzen, *Huangshanen* (Mendi Horiak) eta *Guilin-en*, eta beste planeta bateko moduko paisaiak iruditu zaizkit.

Zer moduz komunikazioarekin?

Leku oso moderno eta turistiko batzuetan izan ezik, oso jende gutxi egiten du ingelesez. Hortaz, mandarinez oso funtsezkoak diren hitz gutxi batzuk esaten ikasi behar izan dut.

Topatu duzu euskaldunik bertan?

Badago *Shanghain* euskal komunitatearen topaleku den Euskal Etxea bat (Facebook: Shanghaiko Euskal Etxea). Ekintza ugari antolatu ohi dute, adibidez: San

Ferminetako asteburu batean jai bat antolatu zuten taberna batean eta bertara gerturatu nintzen lankide batzuekin. Euskaldunak ez ezik, mundu guztiko jendea zegoen bertan.

Bueltatuko zara?

Ba, luzerako ez dut uste, baina espero dut noizbait bueltatzeko aukera izatea. Hala ere, hurrengoan konpainiarekin, ahal bada behintzat!

Zer dauka shangaik Soraluzek ez duena?

Shanghaik ez dauka mendirik, ezta alda-parik ere.



Ahate mingainak saltsan.



Guiliri ibaian, *Guangxi*ko probintzian




Shangai gauzez.


*Gizon jator ta apala
mendizale sutsu,
bizinahia zenukan
barnean indartsu,
gaitzak eraman arren
arima gogotsu,
txoriak lez mendian betiko
aske ta zoriontsu.*



JOSE LUIS LASA
ABUZTUAREN 16AN HIL ZEN
Etxekoak




*Zuen saminarekin bat egiten dugu eta jaso ezazue
gure doluminik sentikorrena*



ENRIQUE RUIZ ORTEGA


Plaentxi HLHiko ikasle, irakasle eta gurasoak.



*"Zorionez betea,
plazer hutsa izan duk
hi lagun izatea.
Ezinezkoa izango zaiguk
hire irrifarra ahaztea.
Betirako gure bihotzean
gure Jose Luis maittea."*

JOSE LUIS LASA
ABUZTUAREN 16AN HIL ZEN

Gabolatzeko hire kuadrila.



*"Adiskide bat bazen
benetan bihozbera
poesiaren hegoek
sentimenduzko bertsoek
antzaldatzen zutena..."*

MARIA URIZAR MURUA
IRAILAREN 7AN HIL ZEN, 96 URTE ZITUELA

Eskerrik asko azken agurrean lagundu diguzuen guztioi.

Etxekoak.



*Eskerrak azken agurrean lagundu
diguzuen guztioi*

**LUCILA RANERO
CAJIGAS**
ABUZTUAREN 29AN HIL ZEN 92
URTE ZITUELA

Etxekoak

**ESKELAK JARTZEKO:
605 706 086**

Hilaren azken barixakuan argitaratuko da aldizkarian.

Eskelaren prezioa:
30 € (txikia)
60 € (luzea)

Motzean

Aritz Perez garaile Valladoliden

Soraluzeko pilotuak denboraldiko laugarren lasterketa irabazi du *El Rebollar* zirkuituan, Valladoliden. Aritzek Gazte-la eta Leongo Quad Cross txapelketan lehiatzen dihardu eta denboraldi biribila egiten ari da. Hurrengo lasterketa urriaren 23an izango du Cuatro Calzas zirkuituan, Salamanca.



Kiroldegiko atek zabalik

Irailaren 14an hasi ziren helduen ikastaroak (pilates, GAP, Bosu...) eta umeen igeriketa-ikastaroak urriaren 3an hasiko dira.

	Kiroldegia Polideportibua	Igerilekua Piscina
Astelehen eta asteazkenak Lunes y miércoles	07:00 - 21:30	07:00 - 20:30
Astearte eta ostegunak Martes y jueves	08:30 - 21:30	08:30 - 20:30
Ostiralak Viernes	08:30 - 21:30	08:30 - 12:00 15:00 - 20:30
Larunbat, igande eta jaiegunak Sábados, domingos y festivos	09:00 - 13:00 Azarotik martxora larunbatok: Sábados desde noviembre a marzo. 16:00 - 19:00	

Pala partiduak barixakuan

Gipuzkoako pala-txapelketako partiduak jokatu dira barixakuan iluntzeko 20:30etatik aurrera. Joseba Etxeberriak eta Ander Oñatek Urnietarren kontra jokatu dute eta Asier Fernandez eta Ximun Larrañagak Azkoitiko bikotearen aurka. Zapatuan 12:30etan hasita Kortabarria-Santamaria eta ondoren Atxotegi-Iruretarren pelota-partiduak izango dira.



Futbol denboraldia abian da



2016-2017 denboraldiko jokalaria.


Datorren denboraldian 140 gaztek jantziko dute Soraluzeren elastikoa, eta zazpi talde egongo dira. Klubak 65.000 euroko aurrekontua izango du eta jokalarien elastiko berriak eta azpiegiturak konpontzea hartu dituzte lehen-tasun moduan.

Zuzendaritza egoera larrian

Klubetik deialdi zabala egin nahi diete guraso zein zaletuei, futbol-taldearen zuzendaritzan parte har dezaten, laguntza premia larrian daude-eta. Bestalde, jakinarazi dute tabernaren ardura Bego Gallastegirena izango dela eta, aurten ere, jokalarien kromo-bilduma egiteko asmoa dutela.

Marraskilo Tour europeen

Hiruogeita hamarretik gora mendizaleek parte hartu zuten joan zen zapatuan egin zen Marraskilo Tourren. Gehienak herrikoak, baina inguruko herrietakoak ere izan ziren. Mendizaleek antolakuntza goraiatu dute eta antolatzaileek laguntzen jardun duten boluntarioen lana.



EDURTZA
taberna

Ogitartekoak, razioak, hanburgesak, pintxoak eta pizzak

Patata tortillak egiten dira enkarguz

Santa Ana 18
Tel. 943 75 13 83



MENDIZABAL
okindegia

Ogia - Prentsa Gosariak

Astelehenetik ostiraloraz:
08:00 - 13:15 eta 17:00 - 20:00

Larunbatok eta igandek:
08:00 - 13:15

Kalebarren 10 - Tel.: 943 75 13 99

Gazteak ere dantzarako gogoz



Gazteak dantzan.

Osintxuko Manex Agirre dantzari gaztea gidari dutela, herriko hoge gazte

inguruk euskal dantzak ikasten jardungo dute. Urte amaierara arteko probaldia izango da. Urrats dantza-taldearen ekimenez abiatu da ikastaroa eta gazteak dantzara erakartzea du helburu. Entsaioak barixaku arratsaldetan egingo dituzte kiroldegian, 19:30etatik 21:00etara bitartean, gaztetxokoaren lokalean.

Bestalde, urtero moduan, Urrats dantza-taldeak fandango eta arin-arin ikastaroa eskainiko du Gaztañerre aurretik. Urriaren 14an egingo da lehenengo saioa eta barixakuro elkartuko dira arratsaldeko 19:15ean Herri Ikastetxeko aretoan.

Soraluzetarren bideoak sarean



Ane Ugalde eta Axlór Elortza.

Soraluzetarrek parte hartu duten bi bideoz zeresan handia eman dute irailean

herrian. Bata, irailean Andoni Callesek Madrilgo "El teatro de las aguas" aretoan eskaini zuen bakarrizketa komikoa da. Andonik berak gaztelaraz idatzi eta interpretatu duen parodia, txakur arriskuak izateko lizentziak lortzeko dagoen arazoaren gainekoa. Bestea, "Domeniko Eskarlati" euskarazko film laburra da, abuztuan Azkoitiako film laburren lehiaketa irabazi zuena. Regetoia burutik kendu ezinik dabilen neska baten istorioa kontatzen du eta Ane Ugaldek eta Axlór Elortzak guraso paperean azaltzen dira. Biek ala biek zabalpen handia izan dute sare sozialetan.

Hau, Neighbor-en album berria

Maite Larburu (Hernani) eta Josh Cheatham (Seattle) Amsterdaneko auzo berean ezagutu ziren. Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik *Ura Patrikan* (2013) diskoaren ostean dator *Hau* (2016). Proposamena zabaldu eta muturrera eraman dute, bigarren lana soinuek, hotsen, musika tresnen eta letren jolas parke bilakatu dute. Lehen diskoan bezala musika tresna ugari erabii dituzte bigarrenaren ere: ukeleak, perkusioa, biolina, pianola, viola de gamba, *shakuhachia*, melodika... Kantuek soinu aberastasun ikaragarria dute. 11 kantuk osatzen dute *HAU* diskoa denbora eta espazio jakin bat gaintzen duten hamaiko kantu. Hizkuntzekin ere jolasten du Larburuk eta kantu gehienak euskaraz sortuak badira ere ingelesez eta gaztelaraz ere abesten du. Bideoklip-a Asier Altuna zuzendariak eta Javi Agirre kamaralariak sortuko du. Disko CD formatuan eskuragarri dago eta Durangoko azokarako LP formatuan ere erosteko aukera izango da.



TOMAS IBARGUTXI AGIRRE
IRAILAREN 15EAN HIL ZEN, 82 URTE ZITUELA

"Zure oroimena beti izango dugu gure artean."

Etxekoak.



MIREN ALDAZABAL MUGURUZA
GONZALO GALLASTEGUI OREGUI
IRAILAK 24AN URTEURREN MEZA

"Ez zaituztegu inoiz ahaztuko, ez zaituztegu inoiz galduko, gure bihotz barrenean oramango zaituztegu betiko."

Etxekoak.

Zorion agurrak



Nahia Uribarri Carretero
Abuztuaren 13an 6 urte
Amabixito, Gorka eta familia
guztian partez. Zorionak
guztiesa!!



Maren Etxabe
Abuztuak 21ian, 9 urte
Zorionak poxpolintxo,
merengezko patxo handi
bat familia guztian partez



Sugar Ostolaza Lakuesta
Abuztuaren 10ean, 7 urte
Zorionak maixia! Zure berrikiak
eta alaittasunak bizipozez betetzen
gaitsu. Patxo piloa etxekuen partez.



Maren Aldazabal
Zorionak Maren!
Irailaren 25an, 3urte.
Muxu handi bat etxeko
guztien partez.



Eñaut Cerrejon Atxa
Irailaren 11n. Zorionak
Txapeldun!!! Etxeko mutil
handi, jarraitu orain bezain
jator! Muxuk danon partez



Zilia Aldazabal Maiztegui
Zorionak printzesa! Ondo pasa
zure urtebetetzea eta segi beti
bezain alaitsu. Etxekoen partez.




Josu Leturiondo Garcia
Irailaren 9an, 9 urte



Iñaki Larrañaga
Irailaren 7an, 49 urte.
Zorionak! Etxekuen partez.



Euen Mendia Hernaez
Urriaren 2an, 8 urte! Zorionak
mutil handi!!



Malen Garitano
Abuztuaren 3an, 10 urte.
Zorionak maixia! Muxu bat
etxekuen partez!



Peru eta Aiuri Gisasola
Zorionak bikote! Haunditzen,
haunditzen...
Maitte zaituztegu. Etxekuak.

Kintadak



1963an jaiotakoak Txurrukan.




1966an jaiotakoak Plaza Zaharrea.

Jaioberriak



Aintzira Carrascosa Gojenola
Abuztuaren 5 ean jaio zen.




Unai Andres Martin
Irailaren 3an jaio zen.




Anas Ouhammi
Uztailaren 2an jaio zen.



Jare Rodiño Sarmiento
Abuztuaren 27an jaio zen.



Lukas Torrientes Cortes
Irailaren 13an jaio zen.



Eneko Aizpuru Uribe
Irailaren 9an jaio zen.

Jaiotakoak eta hildakoak



Anas Ouhammi
Aintzira Carrascosa Gojenola
Jare Rodiño Sarmiento
Unai Andres Martin
Oihan Miyashiro Canales
Lukas Torrientes Cortes
Eneko Aizpuru Uribe



Emilia Hernaltes Castilla
Jose Luis Lasa Bandaormaechea
Lucia Ranero Cajigas
Maria Urizar Murua
Maria Rosario Zurutuza Palacios
Enrique Ruiz Ortega
Argimiro Andres



Iturria: Ana Maiztegi.

Askabeitiko iturria inauguratu zutenekoa

1952. Urteko maiatzaren 22an Sociedad Deportivak inauguratu zuen Askabeitiko iturria. Mendizaleek iturria eraiki zuten, sorluzetarrek horrenbeste maite zuten lekuan. Askabeitiko ingurua leku ederra zen orduan, eta uda partean herritar asko joaten ziren jan-edanak hartu eta bertan eguna pasatzera. Argazkian ageri dira, besteak beste, Felix Abarrategi elkarteko presidentea, Heraclia Maiztegi ekitaldiko amabitxi egin zuena eta iturria bedeinkatu zuen Don Migel abadea.



OROIORE Hileta zerbitzuak

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

- Zerbitzu etengabea 24 ordutan
- Ez onartu besterik gabe zure asegu-konpainiak esaten dizun hileta zerbitzua, jakin ezazu nahi duzun hileta zerbitzua aukera dezakezula beti.
- Guztiarekin arduratzen gara: eskelak, lorak, errausketak, hilobiratzeak, bellatokia, tramitazioak etab.

617442155 zenbakira deitu eta berehala jarriko naiz zurekin harremanetan

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin eta nire helburua familiar ahalk eta tratunik beroena hurbilekoena ematea izango da.

**ESKELA DOAN
PIL-PILEAN HERRI ALDIZKARIAN**

BERGARAN, Amilaga 27an

maribi • 617442155 • maribi@oroilore.com

mintzalaguna.

KONTURATZERAKO

EUSKARAZ.



**EMAN
IZENA!**

Ahaztutako hizkuntza freskatzeko,
jende berria ezagutzeko,
ilobarekin hitz egiteko.

Beste batzuei hori guztia egiten laguntzeko.
nahi duzunerako, baina gozatuz.

Pil-pilean euskara elkarrean | 943751304 | berbalaguna@pilpilean.com



ERAIKI EUSKADI MIRA AL FUTURO



ZUREA BOZKATU

VOTA POR LO TUYO



eaj-pnv.eus
urkullu.eus

